

APIRILA
ABRIL

2018



www.azkunazentroa.eus

Az
Azkuna Zentroa

Alhóndiga Bilbao

SOINUA SONIDO

SOINUA ETA EKINTZA SONIDO Y ACCIÓN

Sinposioa Simposio

Apirilak 12 eta 13, 10:00-13:30 / 13:30-19:00

EHUko Ikersoinu ikerketa-taldeak, 'Soinua eta ekintza' sinposioa antolatu du, Azkuna Zentroarekin elkarlanean; soinuaren, gorpuztaren eta espazioaren arteko harremanak dira ekitaldiaren ardatzak, bai eta harreman horietan bitarteko diren teknologiak ere.

Arte Ederren Fakultateko, Bilboko Hezkuntza Fakultateko eta Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko ikerlariek osatzen dute Ikersoinu, eta soinuaren eta ekintzaren arteko harremana ikertzen jarduten dute. Topaketa honetan, soinuaren inguruko gogoetetan eta praktika artistikoetan aurrera egitea da asmoa. Soinu-ekintzaren gaitasun performatiboaren inguruan arakatzeta da kontua, 'Aditzea eta zarata' gaiari buruzko lehenengo sinposioan zabaldu zen ikuspuntuan sakonduz.

Topaketak lau atal ditu: Soinua eta teknologia, Ahotsa eta ekintza, Soinu-arte eta Keinua eta soinua. Bertako eta nazioarteko ikerlariek, artistek eta musikariek hartuko dute parte topaketan, hala nola Ixiar Rozas, Thor Magnusson, Nadine Couture, Miriam Desainte-Catherine, Itziar Okariz, Miguel Molina eta Llorenç Barber-ek. Iker-soinuko kide hauek ere parte hartuko dute: Josu Rekalde (ikerketa-taldeko IP), Enrike Hurtado, Jon Mantzisor, Mikel Arce, Cristina Miranda, Natalia Monge, Cristina Arriaga, Baikune de Alba, Patxi Araujo, Gabriel Villota, Juan Crego eta Amaia Vicente.

Bastida Aretoa. Sarrera dohainik, aurrez inskribatuz gero (www.azkunazentroa.eus), leku guztiak bete arte



©Cristina Miranda

12 y 13 de abril, 10:00-13:30h / 13:30-19:00h

Ikersoinu, el grupo de investigación de la EHU-UPV, en colaboración con Azkuna Zentroa organiza el simposio 'Sonido y acción' que se centra en las relaciones entre sonido, cuerpo y espacio, así como en las tecnologías que median estas relaciones.

Ikersoinu está formado por investigadores de la Facultad de BBAA, la Facultad de Educación de Bilbao y la Facultad de Ciencias Sociales y de la Comunicación, e investiga la relación entre el sonido y la acción. En este encuentro se pretende avanzar en las reflexiones y en las prácticas artísticas entorno al sonido. Se trata de indagar sobre la capacidad performativa del acto sonoro, ahondando en una perspectiva abierta en el primer simposio, que versó sobre el tema de la Escucha y el Ruido.

El encuentro se divide en cuatro áreas: Sonido y tecnología, Voz y acción, Arte sonoro y Gesto y sonido; y cuenta con la participación de investigadores, artistas y músicos locales e internacionales como Ixiar Rozas, Thor Magnusson, Nadine Couture, Miriam Desainte-Catherine, Itziar Okariz, Miguel Molina y Llorenç Barber. Desde Ikersoninu participarán: Josu Rekalde (IP del grupo de investigación), Enrike Hurtado, Jon Mantzisor, Mikel Arce, Cristina Miranda, Natalia Monge, Cristina Arriaga, Baikune de Alba, Patxi Araujo, Gabriel Villota, Juan Crego y Amaia Vicente.

Sala Bastida. Entrada libre, con inscripción previa (www.azkunazentroa.eus) hasta completar aforo